



OLATZ GARAMENDI LANDA ANDREAK, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU ETA JAURLARITZAREN IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT:

Gobernu Kontseiluak 2022ko urriaren 25an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau onartu zuela:

**ERABAKIA, GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE
AGINTARITZAREKIN HITZARMEN BAT IZENPETZEKO BAIMENA
EMATEKOA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN GARRAIO-DATU
AURRERATUAK SORTZEKO, EUROPAR BATASUNAK
FINANTZATUTAKO BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA
ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN - NEXT GENERATION EU.**

(2022/01084 ESP.) (C/20220125)

Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 10.32 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbideko, lehorreko, itsasoko ibaietako eta kable bidezko garraioaren eta portu, heliportu, aireportu eta meteorologia-zerbitzuaren arloko eskumen eskusiboa, horrek Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan xedaturikoa ezertan galarazi gabe. Garraio-gaietan, zama-kontrataguneak eta -terminalak.

Arlo horietan Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 11. artikulua eman dizkio Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari, bai eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarilaren 19ko 11/2021 Dekretuak ere.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren funtzioen artean, bere eskumenekoak diren eremuekin lotutako sektore ezberdinak laguntzeko politika aurrera eramatea dago, eta adierazitako sail horri esleitutako ahalmenetako bat Euskal Autonomia Erkidegoan bidaiarien garraioa planifikatzea eta antolatzea da, aipatutako 11/2021 Dekretuaren 15.2 artikulua d) atalean agertzen den bezala.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak, Irungo Udalak eta Errenteriako Udalak "Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa-Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak" partzuergoa sortzeko eta eratzekeo prozesua burutu zuten, eta haren estatutuak onartu zituzten.



2011ko otsailaren 10ean, “Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa-Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza” Partzuergoaren estatutuak argitaratu ziren EHAA, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Donostiako Udalak, Irungo Udalak eta Errenteriako Udalak osatzen zuten.

2013ko ekainaren 14an EHAA argitaratu zen estatutu horiek aldatzeko iragarkia, eta Arrasateko, Eibarko, Hernaniko eta Zarauzko Udalak gehitu ziren.

2015eko azaroaren 9an, estatutuak aldatzeko iragarkia argitaratu zen EHAA, eta Lasarte-Oriako Udala gehitu zen.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoaren Batzar Nagusiak, 2018ko martxoaren 20ko ezohiko bilkuran, aho batez erabaki zuen bere estatutuetako 1., 3., 6., 16., 28., 30., 34., 38. eta 40. artikuluen aldaketa onartzea, indarreko araudira egokitzeko.

2019ko uztailaren 3an, estatutuak aldatzeko iragarkia argitaratu zen EHAA, eta Oiartzungo Udala gehitu zen.

Honako hauek dira, besteak beste, ATTG Partzuergoaren xedea eta helburuak: garraioaren arloan eskumenak dituzten erakunde guztien ahal publikoen erabilera koordinatua sustatzea eta erraztea; administrazioen arteko lankidetzaren gain hartzea, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio-politikei dagokienez dauden interes guztiak bateratzea; zerbitzuen, sareen eta tarifen koordinazioa sustatzea eta bultzatzea, eta erabiltzailearen esku eskaintza hobea jartzea, azken batean garraioaren erabilera sustatzeko eta suspertzeko; garraio-sare bakarra eta integrala sustatzea; eta garraio arrazionalagoa eta eraginkorragoa lortzea, garapen iraunkorraren alderdi sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak erabat integratuz.

Horrez gain, ATTGren helburu eta xede honako hauek ere badira: Gipuzkoako garraio-zerbitzuen eta -azpiegituren esparruan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza osatzen duten erakundeek eta aipatutako Agintaritzaren barne ez dauden baina Gipuzkoako garraio-zerbitzu eta -azpiegituren titularrak edo emakidadunak diren beste garraio-erakunde eta -operadoreen arteko koordinazioa eta lankidetzaren artikulatzea; eta ATTGa osatzen duten erakundeek eskumeneko mota guztietako jarduerak kudeatzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio-zerbitzu eta -azpiegituren esparruan. Ondorio horietarako egin beharko dira eskurantzak, transferentziak edo eskumenen eskuordetzeak, edo dagozkien kudeaketa-gomendioak, kasu bakoitzean aplikatzeko den tresna juridikoaren bidez.

Bestetik, 2020ko abenduaren 31n 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, argitaratu zen, zeinaren bidez onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikartzeko presako neurriak.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua betez (2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (MRR) ezartzen duena), Ministro Kontseiluak, 2021eko apirilaren 27ko bileran, Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (PRTR) onartu zuen. Plan horrek 2021-2024ko aldian abiaraziko diren proiektuetan jartzen du arretagunea, ekonomiaren suspertze eta eraldatze azkarrean haien eragina ahalik eta handiena izan dadin. Europako Batzordeak planaren aldeko ebaluazioa egin zuen 2021eko ekainaren 16an, eta Europako Kontseiluak 2021eko uztailaren 13an onartu zuen.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren jarraibideen ildotik, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak honako hauek jasotzen ditu, besteak beste: 1. osagaia «Hiri- eta metropoli-inguruneetako mugikortasun jasangarri, seguru eta konektaturako talka-plana» eta 6. osagaia

«Mugikortasun jasangarria, segurua eta konektatua». Ildo horretan, 2021eko azaroaren 5ean egindako Garraioen Konferentzia Nazionalaren bilkuran, Garraioen Konferentzia Nazionalaren Erabaki bat onartu zen, zeinaren bidez 2021eko eta 2022ko ekitaldietako aurrekontu-kredituen lurralde-banaketarako irizpideak ezartzen baitira, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 1. eta 6. osagaien esparruan inbertsio-jarduketak finantzatzeko.

Erabaki horren II. eranskinaren 5. atalak xedatzen duenez, «finantzaketa-lerro horien onuradunak autonomia-erkidegoak eta Ceuta eta Melilla hiriak dira, erabaki honen II. eranskinean jasotakoaren arabera, baina azken hartzaileak erakunde publikoak edo beste administrazio batzuk izan daitezke, baldin eta hala formalizatzen bada dagozkien hitzarmenen edo bestelako tresna juridikoen bidez. Nolanahi ere, azken onuradunek garatu beharreko neurriek aurreikusitako helburuak lortzen laguntzen dutela eta adierazleen balioa zehazteko beharrezkoa den informazioa ematen dutela bermatzeko mekanismoak ezarri beharko dira. Hirugarrenentzako finantzaketa lortu nahi diren helburuak lortzearekin lotu behar da».

Era berean, erabaki horrek C6I4-CCAA inbertsio-lerroa barne hartzen du. Lerro horren helburua zera da: autonomia-erkidegoko eta tokiko eremuan bidaiarien eta salgaien garraio-zerbitzuak digitalizatzeko jarduerak garatzea, bai eta autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek beren eskumeneko errepide edo trenbideko salgaien eta bidaiarien garraioari dagokionez ematen dituzten administrazio-zerbitzuak digitalizatzeko jarduerak ere. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 6. osagaiaren (Mugikortasun jasangarria, segurua eta konektatua) 4. inbertsioaren (Garraio jasangarri eta digitalerako laguntza-programa) aurreikusitako 15. neurriaren zati bat garatzeko egiten da helburu hori.

Erabakiaren III. eranskinean ezarritakoaren arabera, EAERI dagokion C6I4-CCAA inbertsio-lerroaren kargura finantzatuko den jarduketa «EAEko garraio publikoa digitalizatzea» da, eta horren barruan sartzen da hitzarmen honen xedea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren eraldaketa digitalaren helburua lortzen laguntzeko.

Bestalde, hitzarmen honek honako hauetan araututakoari jarraituko dio: HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena, eta HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen diren, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugari eta helburuen betetze-mailaren eta aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko.

Azkenik, honako hauetan xedatutakoa hartuko da kontuan: 11/2021 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena, zehazki II. tituluko V. kapituluaren ezarritakoa (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako funtsak kudeatzea), bai eta Gobernu Kontseiluaren 2022ko otsailaren 8ko Erabakian ezarritakoa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketan eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazteari, kudeaketari eta jarraipenari dagokienez.

Legezketasun-kontroleko eta kontu-hartzailetza ekonomiko-fiskaleko kontroleko aldeko txostenak egin direnez, Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztu behar zaio, baimena eman dezan, Jaurlaritzaren Legearen 18.l) artikuluekin bat etorritik.

Ondorioz, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren proposamenez, eta 2022ko urriaren 25ean egindako bilkuran aztertu ondoren, Gobernu Kontseiluak honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

«**Lehenengoa.**- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari dirulaguntza zuzena ematea, gehienez 188.000,00 eurokoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio-datu aurreratuak sortzeko.

Bigarrena.- Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren arteko hitzarmena sinatzeko baimena ematea. Hitzarmen hori eranskin gisa agertzen da, Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio-datu aurreratuak sortzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, gehienez ere, EHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI MILA EURO (188.000,00 €)-ko ekarpen ekonomikoa egingo du. Horretarako, 1000831000 1.12281.71200 2022/001284 aurrekontu-aplikazioa hornitu da, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorraren kontura.

Hirugarrena.- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean adostasuna emateko eta hitzarmena sinatzeko.

Laugarrena.- Jaurlaritzaren Idazkaritzak hitzarmenaren testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko aginduko du».

ERANSKINA

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Vitoria-Gasteizen, sinadura digitalaren egunean.

OLATZ GARAMENDI LANDA, CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA DEL GOBIERNO

CERTIFICO:

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 25 de octubre de 2022, adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

ACUERDO POR EL QUE SE AUTORIZA LA SUSCRIPCIÓN DE UN CONVENIO CON LA AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA PARA LA GENERACIÓN DE DATOS DE TRANSPORTE AVANZADOS EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA, EN EL MARCO DEL PLAN DE RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA FINANCIADO POR LA UNIÓN EUROPEA - NEXT GENERATION EU. (EXP. 2022/01084) (C/20220125)

En virtud de lo dispuesto por el artículo 10.32 del Estatuto de Autonomía, corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco, entre otras, la competencia exclusiva en materia de ferrocarriles, transportes terrestres, marítimos, fluviales y por cable, puertos, helipuertos, aeropuertos y Servicio Meteorológico del País Vasco, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.1.20ª de la Constitución. Centros de contratación y terminales de carga en materia de transportes.

La atribución de funciones competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las áreas descritas ha sido conferida al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco por el artículo 11 del Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y por el Decreto 11/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes

Entre las funciones del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes se incluye el de llevar a cabo una política de apoyo a los diferentes sectores relacionados con las áreas de su competencia, siendo una de las facultades atribuidas al citado Departamento el planificar y ordenar el transporte de personas viajeras en la Comunidad Autónoma del País Vasco, tal y como figura en el apartado d) del artículo 15.2 del indicado Decreto 11/2021.

Por otra parte, la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi junto con la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, el Ayuntamiento de Irún y el Ayuntamiento de Errenteria llevaron a cabo el proceso para la creación y constitución del consorcio “Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa-Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza” y la aprobación de sus estatutos.

Con fecha 10 de febrero de 2011 se publicaron en el BOPV los estatutos del Consorcio “Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa-Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza”, estando constituido por la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Gobierno Vasco, el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, el Ayuntamiento de Irún y el Ayuntamiento de Errenteria.

Con fecha 14 de junio de 2013 se publicó en el BOPV el anuncio de modificación de dichos estatutos, incorporándose los Ayuntamientos de Arrasate-Mondragón, Eibar, Hernani y Zarautz.

Con fecha 9 de noviembre de 2015 se publicó en el BOPV el anuncio de modificación de los estatutos, incorporándose el Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

La Asamblea General del Consorcio Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, en sesión extraordinaria de 20 de marzo de 2018, adoptó por unanimidad el acuerdo de aprobar la modificación de los artículos 1, 3, 6, 16, 28, 30, 34, 38 y 40 de sus estatutos para adaptarlos a la normativa vigente.

Con fecha 3 de julio de 2019 se publicó en el BOPV el anuncio de modificación de los estatutos, incorporándose el Ayuntamiento de Oiartzun.

El objeto y las finalidades del Consorcio ATTG son, entre otras, promover y facilitar el ejercicio coordinado de las potestades públicas por todas las instituciones con competencias en materias de transporte, asumir la cooperación interadministrativa y conciliar los diversos intereses que confluyen en el Territorio Histórico de Gipuzkoa en relación con las políticas de transporte; fomentar e impulsar la coordinación de los servicios, redes y tarifas, y la puesta a disposición del usuario de una mejor oferta, con el fin último de potenciar y estimular el uso del transporte; promover la red de transportes única e integral; así como impulsar la consecución de un transporte más racional y eficiente mediante la integración plena de los aspectos sociales, medioambientales y económicos del desarrollo sostenible.

Adicionalmente, son objeto y finalidades de la ATTG el articular la coordinación y cooperación entre las entidades que integran la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa en el ámbito de los servicios y de las infraestructuras de transporte de Gipuzkoa y aquellas otras entidades y operadores de transporte que, no siendo integrantes de la misma, son también titulares o concesionarios en Gipuzkoa de servicios e infraestructuras de transporte; así como el gestionar, en el ámbito de los servicios y de las infraestructuras de transporte del Territorio Histórico de Gipuzkoa, toda clase de actividades de competencia de las entidades que integran la ATTG. A estos efectos, será preciso que, mediante el instrumento jurídico que en cada caso resulte de aplicación, tengan lugar las correspondientes atribuciones, transferencias o delegaciones de competencias o las correspondientes encomiendas de gestión.

Por otro lado, con fecha 31 de diciembre de 2020 se publica el Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

En cumplimiento del Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021, por el que se establece el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR), el Consejo de Ministros, en su reunión de 27 de abril de 2021, ha aprobado el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia de España (PRTR) que se concentra en proyectos que se pondrán en marcha en el periodo 2021-2024 para maximizar su impacto sobre la recuperación y transformación rápida de la economía. El Plan ha sido objeto de evaluación positiva por la Comisión europea el 16 de junio de 2021 y aprobado por el Consejo europeo el 13 de julio de 2021.

En línea con las directrices del MRR, el PRTR incluye, entre otros, el Componente 1 “Plan de choque de movilidad sostenible, segura y conectada en entornos urbanos y metropolitanos” y el Componente 6 “Movilidad sostenible, segura y conectada”. En este sentido, en la sesión de la Conferencia Nacional de Transportes celebrada en la fecha de 5 de noviembre de 2021, fue aprobado el Acuerdo de la Conferencia Nacional de Transportes por el que se fijan los criterios de distribución territorial de créditos presupuestarios de los ejercicios 2021 y 2022 para la financiación de actuaciones de inversión en el marco de los mencionados componentes 1 y 6 del PRTR.

El apartado 5 del Anexo II de dicho Acuerdo dispone que *“las beneficiarias de estas líneas de financiación son las Comunidades Autónomas y las ciudades de Ceuta y Melilla según lo reflejado en el anexo II del presente Acuerdo, si bien los destinatarios finales de las mismas podrán ser las entidades públicas u otras administraciones, si así se formalizase a través de los correspondientes convenios u otros instrumentos jurídicos. En todo caso deberán establecerse mecanismos que aseguren que las medidas a desarrollar por los beneficiarios finales en el caso que sean terceros contribuyen al logro de los objetivos previstos y que aportan la información que, en su caso, fuera necesaria para determinar el valor de los indicadores. La financiación a terceros debe vincularse al logro de los objetivos que se persiguen.”*

Asimismo, el referido Acuerdo incluye la línea de inversión C6I4-CCAA, cuyo objetivo es el desarrollo de actuaciones de digitalización de los servicios de transporte de personas viajeras y mercancías en el ámbito autonómico y local, y de los servicios administrativos que se prestan por parte de las Comunidades Autónomas y de las ciudades de Ceuta y Melilla, en relación con el transporte de mercancías y personas viajeras por carretera o ferrocarril de su competencia. Esta finalidad se realiza en desarrollo de parte de la medida 15 prevista en la inversión 4 “Programa de apoyo para un transporte sostenible y digital” del Componente 6 “Movilidad sostenible, segura y conectada” del PRTR.

Según establece el Anexo III del Acuerdo, la actuación objeto de financiación con cargo a la línea de inversión C6I4-CCAA correspondiente a la CAPV es la “Digitalización del transporte público de Euskadi”, dentro de la cual se incluye el objeto del presente Convenio, contribuyendo así a la consecución del objetivo de transformación digital del PRTR.

Por otra parte, este convenio se ajustará a lo regulado en la Orden HFP 1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia y en la Orden HFP 1031/2021, de 29 de septiembre, por la que se establece el procedimiento y formato de la información a proporcionar por las Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local para el seguimiento del cumplimiento de hitos y objetivos y de ejecución presupuestaria y contable de las medidas de los componentes del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

Finalmente se atenderá a lo dispuesto en la Ley 11/2021, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2022, en concreto a lo establecido en el Título II, Capítulo V Gestión de los fondos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, así como al Acuerdo de Consejo de Gobierno, de 8 de febrero de 2022, en relación con la ejecución presupuestaria y contable, gestión y seguimiento de las actuaciones y proyectos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

Habiéndose emitido los informes favorables de control de legalidad y de control interventor económico-fiscal, procede su elevación al Consejo de Gobierno para su autorización, de conformidad con el artículo 18.1) de la Ley de Gobierno

En su virtud, a propuesta del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, y previa la correspondiente deliberación, en sesión celebrada el día 25 de octubre de 2022, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

ACUERDO

«**Primero.** - Conceder una subvención directa a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa por un importe máximo de 188.000,00 €, destinado a la generación de datos de transporte avanzados en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Segundo.- Autorizar de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, la suscripción del Convenio, que figura como Anexo, entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa para la generación de datos de transporte avanzados en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, lo que supondrá a la primera una aportación económica máxima estimada de CIENTO OCHENTA Y OCHO MIL EUROS (188.000,00 €), para lo que se ha dotado a la aplicación presupuestaria 1000831000 1.12281.71200 2022/001284, habilitada con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2022.

Tercero. - Autorizar al Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes para prestar su consentimiento en nombre de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y para suscribir el Convenio.

Cuarto. - Por la Secretaría de Gobierno se ordenará la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del texto del Convenio».

ANEXO

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación, en Vitoria-Gasteiz, en la fecha de su firma digital.

HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN ARTEKOA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN GARRAIO-DATU AURRERATUAK SORTZEKO, EUOPAR BATASUNAK NEXT GENERATION EU FUNTSEN BIDEZ FINANTZATUTAKO SUSPERTZE-, ERALDATZE- ETA ERRESILIENTZIA-PLANAREN ESPARRUAN.

Vitoria-Gasteizen, 2022koaren(e)(a)n

BILDU DIRA:

Alde batetik, Ignacio Maria Arriola Lopez jauna, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa, zeinak hitzarmen hau sinatzeko baimena jaso baitu Gobernu Kontseiluaren 2022koaren(e)ko Erabakiaren bidez.

Eta bestetik, Rafaela Romero Pozo Ezcurra andrea, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako presidentea, haren ordezkari gisa.

Esku hartzen duten guztiek aitortzen diote elkarri HITZARMEN hau egiteko lege-gaitasuna, eta, xede horretarako,

AZALTZEN DUTE:

I. Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 10.32 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbideko, lehorreko, itsasoko ibaietako eta kable bidezko garraioaren eta portu, heliportu, aireportu eta meteorologia-zerbitzuaren arloko eskumen eskusiboa, horrek Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan xedaturikoa ezertan galarazi gabe. Garraio-gaietan, zama-kontrataguneak eta –terminalak.

Arlo horietan Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 11. artikulua eman dizkio Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari, bai eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuak ere.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren funtzioen artean, bere eskumenekoak diren eremuekin lotutako sektore ezberdinak laguntzeko politika aurrera eramatea dago, eta adierazitako sail horri esleitutako ahalmenetako bat Euskal Autonomia Erkidegoan bidaia-erremonten garraioa planifikatzea eta antolatzea da, aipatutako 11/2021 Dekretuaren 15.2 artikulua d) atalean agertzen den bezala.

II. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak, Irungo Udalak eta Errenteriako Udalak “Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa-Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak” partzuergoa sortzeko eta eratzeko prozesua burutu zuten, eta haren estatutuak onartu zituzten.

2011ko otsailaren 10ean, “Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa-Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak” Partzuergoaren estatutuak argitaratu ziren EHAAAn, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Donostiako Udalak, Irungo Udalak eta Errenteriako Udalak osatzen zuten.

2013ko ekainaren 14an EHAAAn argitaratu zen estatutu horiek aldatzeko iragarkia, eta Arrasateko, Eibarko, Hernaniko eta Zarauzko Udalak gehitu ziren.

2015eko azaroaren 9an, estatutuak aldatzeko iragarkia argitaratu zen EHAAAn, eta Lasarte-Oriako Udala gehitu zen.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Partzuergoaren Batzar Nagusiak, 2018ko martxoaren 20ko ezohiko bilkuran, aho batez erabaki zuen bere estatutuetako 1., 3., 6., 16., 28., 30., 34., 38. eta 40. artikuluen aldaketa onartzea, indarreko araudira egokitzeko.

2019ko uztailaren 3an, estatutuak aldatzeko iragarkia argitaratu zen EHAAAn, eta Oiartzungo Udala gehitu zen.

Honako hauek dira, besteak beste, ATTG Partzuergoaren xedea eta helburuak: garraioaren arloan eskumenak dituzten erakunde guztien ahal publikoen erabilera koordinatua sustatzea eta erraztea; administrazioen arteko lankidetzak bere gain hartzea, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio-politikei dagokienez dauden interes guztiak bateratzea; zerbitzuen, sareen eta tarifen koordinazioa sustatzea eta bultzatzea, eta erabiltzailearen esku eskaintza hobea jartzea, azken batean garraioaren erabilera sustatzeko eta suspertzeko; garraio-sare bakarra eta integrala sustatzea; eta garraio arrazionalagoa eta eraginkorragoa lortzea, garapen iraunkorraren alderdi sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak erabat integratuz.

Horrez gain, ATTGren helburu eta xede honako hauek ere badira: Gipuzkoako garraio-zerbitzuen eta -azpiegituren esparruan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak osatzen duten erakundeek eta aipatutako Agintaritzaren barne ez dauden baina Gipuzkoako garraio-zerbitzu eta -azpiegituren titularrak edo emakidadunak diren beste garraio-erakunde eta -operadoreen arteko koordinazioa eta lankidetzak artikulatzea; eta ATTGa osatzen duten erakundeek eskumeneko mota guztietako jarduerak kudeatzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio-zerbitzu eta -azpiegituren esparruan. Ondorio horietarako egin beharko dira eskurantzak, transferentziak edo eskumenen eskuordetzeak, edo dagozkien kudeaketa-gomendioak, kasu bakoitzean aplikatzeko den tresna juridikoaren bidez.

III. 2020ko abenduaren 31n 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, argitaratu zen, zeinaren bidez onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua betez (2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (MRR) ezartzen duena), Ministro Kontseiluak, 2021eko apirilaren 27ko bileran, Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (PRTR) onartu zuen. Plan horrek 2021-2024ko aldian abiaraziko diren proiektuetan jartzen du arretagunea, ekonomiaren suspertze eta eraldatze azkarrean haien eragina ahalik eta handiena izan dadin. Europako Batzordeak planaren aldeko ebaluazioa egin zuen 2021eko ekainaren 16an, eta Europako Kontseiluak 2021eko uztailaren 13an onartu zuen.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren jarraibideen ildotik, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak honako hauek jasotzen ditu, besteak beste: 1. osagaia «Hiri- eta metropoli-inguruneetako mugikortasun jasangarri, seguru eta konektaturako talka-plana» eta 6. osagaia «Mugikortasun jasangarria, seguru eta konektatua». Ildo horretan, 2021eko azaroaren 5ean egindako Garraioen Konferentzia Nazionalaren bilkuran, Garraioen Konferentzia Nazionalaren Erabaki bat onartu zen, zeinaren bidez 2021eko eta 2022ko ekitaldietako aurrekontu-kredituen

lurralde-banaketarako irizpideak ezartzen baitira, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 1. eta 6. osagaien esparruan inbertsio-jarduketak finantzatzeko.

Erabaki horren II. eranskinaren 5. atalak xedatzen duenez, «finantzaketa-lerro horien onuradunak autonomia-erkidegoak eta Ceuta eta Melilla hiriak dira, erabaki honen II. eranskinean jasotakoaren arabera, baina azken hartzaileak erakunde publikoak edo beste administrazio batzuk izan daitezke, baldin eta hala formalizatzen bada dagozkien hitzarmenen edo bestelako tresna juridikoen bidez. Nolanahi ere, azken onuradunek garatu beharreko neurriek aurreikusitako helburuak lortzen laguntzen dutela eta adierazleen balioa zehazteko beharrezkoa den informazioa ematen dutela bermatzeko mekanismoak ezarri beharko dira. Hirugarrenentzako finantzaketa lortu nahi diren helburuak lortzearekin lotu behar da».

Era berean, erabaki horrek C6I4-CCAA inbertsio-lerroa barne hartzen du. Lerro horren helburua zera da: autonomia-erkidegoko eta tokiko eremuan bidaia-erien eta salgaien garraio-zerbitzuak digitalizatzeko jarduerak garatzea, bai eta autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek beren eskumeneko errepide edo trenbideko salgaien eta bidaia-erien garraioari dagokionez ematen dituzten administrazio-zerbitzuak digitalizatzeko jarduerak ere. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 6. osagaiaren (Mugikortasun jasangarria, segurua eta konektatua) 4. inbertsioaren (Garraio jasangarri eta digitalerako laguntza-programa) aurreikusitako 15. neurriaren zati bat garatzeko egiten da helburu hori.

Erabakiaren III. eranskinean ezarritakoaren arabera, EAERI dagokion C6I4-CCAA inbertsio-lerroaren kargura finantzatzeko den jarduketa «EAERI garraio publikoa digitalizatzea» da, eta horren barruan sartzen da hitzarmen honen xedea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren eraldaketa digitalaren helburua lortzen laguntzeko.

IV. Hitzarmen honek honako hauetan araututakoari jarraituko dio: HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena, eta HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen diren, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugari eta helburuen betetze-mailaren eta aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko.

V. HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikuluan xedatutakoa betez, 2022ko martxoaren 29an onartu zen Eusko Jaurlaritzaren Iruzuraren aurkako Neurrien Plana, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoari aplikatzekoa, bai eta Eusko Jaurlaritzaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa finantzatzeko funtsak jasotzen dituzten foru- eta toki-sektore publikoko administrazio eta erakundeei aplikatzekoa ere. Era berean, plan horrek aplikagarritasun zuzena edo egokitua hedatu ahal izango dio borondatez hala erabakitzen duen edozein erakunde betearazle eta/edo kudeatzailerari.

VI. Era berean, honako hauetan xedatutakoa hartuko da kontuan: 11/2021 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen, zehazki II. tituluko V. kapituluaren ezarritakoa (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako funtsak kudeatzea), bai eta Gobernu Kontseiluaren 2022ko otsailaren 8ko Erabakian ezarritakoa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketaren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazteari, kudeaketari eta jarraipenari dagokienez.

VII. Tartean dauden alde guztiek lortu nahi diren xedeak lortzeko interes berberak dituztela aintzat hartuta, hitzarmen hau sinatzea erabaki dute sinatzaileek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren babespean, honako hauen arabera:

KLAUSULAK:

Hitzarmen honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio-datu aurreratuak sortzeko konpromisoa hartzeko baldintzak arautzea da, bertako klausuletan jasotako baldintzetan.

1.- Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio-datu aurreratuak sortzeko buruzko proiektua egitea.

2.- Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio-datu aurreratuak sortzeko behar diren jarduerak bere kontura egitea. Lan horiek honako jarduketak hauek behar dituzte:

- ATTG-ari lotutako garraio-sareen datuen GTFS (estatikoak) eta GTFS-RT (denbora erreala) fitxategiak sortzea, I. eranskinean xedatutakoaren arabera.
- Datuak NeTEx (estatikoak) eta SIRI (denbora erreala) formatuan bihurtzea.
- Bestelako mugikortasunekin lotutako artxiboak sortzea (bizikleta publiko partekatua, taxiak, aparkalekuak, garraio bertikala), I. eranskinean xedatutakoaren arabera.
- Garraio-sareetako datuak eguneratzeko eta eraldatzeko prozesuak automatizatzea, haien kalitatea eta jarraitutasuna ziurtatzea eta ahalik eta informazio osatuena eta zehatzena eskaintzea.
- Moveuskadirekin datuak trukatzeko eredu bat ezartzea, fitxategiak Moveuskadi plataformaren bidez eskuragarri diren ATTGren HTTP edo FTP zerbitzarian argitaratuz, edo fitxategiak Moveuskadiko FTPN argitaratuz.

Guztira, Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio-datu aurreratuak sortzeko egin beharreko lanen kostua 188.000,00 eurokoa da (BEZa kanpo).

3.- Honako mugari eta helburu hauek betetzea:

- Aurreko klausulan aipatutako datu estatikoak eman direla justifikatzea 2022ko abenduaren 31rako.
- Aurreko klausulan aipatutako datu dinamikoak (denbora erreala) eman direla justifikatzea 2023ko martxoaren 1erako.
- Aurreko klausulan azaldutako gainerako datuak eman direla justifikatzea 2023ko maiatzaren 1erako.

4.- Justifikazio-txosten hauek aurkeztea, egindako gastuaren bilakaera eta mugarriak eta helburuak bete direla egiaztatzeko:

- Mugari eta helburuen betetze-mailaren eta aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipenari buruzko justifikazio-txostenak. Hilero neurtuko dituzte jarraipen-adierazle hauek:
 - Lizitatutako aurrekontua.

- Esleitutako aurrekontua.
- Egikaritutako aurrekontua.
- Amaitutako proiektuen kopurua.

Txosten horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari emango zaizkio urte bakoitzeko uztailaren 10a eta urtarrilaren 10a baino lehen, organo horrek horretarako emandako dituen jarraibideen arabera.

- Hiru hilez behingo aurreikuspenen txostenak. Horietan, aurrerapen-maila eta hurrengo bederatzi hilabeteetarako aurreikuspenak jasoko dira, hiruhilekoen arabera egituratuta. Ez betetzeko balizko arriskuak eta plangintzarekiko desbideratzeak identifikatuko dira. Horrez gain, arriskuak arintzeko prebentzio- edo zuzenketa-ekintzak planteatuko dira, helburuak eta adierazleak onartutako egutegian eta baldintzekin betetzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak emandako jarraibideen arabera.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari informazioa eta kontuak emateko betebeharra, eta honako hauek betetzen direla ziurtatzea:

- Adierazleei buruzko informazioa aldizka emateko eta argitaratzeko baldintzak, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak ezarritako kondizioetan, estatuko eta Europako Erkidegoko araudiarekin bat etorritik.
- Proiektu eta neurrietan, zenbatetsitako kostuaren aldean, gauzatutako gastuari buruzko informazioa aldizka emateko eta argitaratzeko baldintzak, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak estatuko eta Europako Erkidegoko araudiarekin bat etorritik ezarritako baldintzetan.
- Adierazleen neurketari eta dokumentazio euskarriaren kontserbazioari buruzko auditoretza-pista egokia mantentzea, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduko (EB, Euratom) 132. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, erregistro bat mantenduko da eta egiaztagiria, datu estatistikoak eta finantzaketari buruzko gainerako agiriak gordeko dira, bai eta formatu elektronikoko erregistroak eta dokumentuak ere, bost urteko epean saldoa ordaintzen denetik edo, ordainketarik ez badago, eragiketa egin denetik. Era berean, erregistroak eta dokumentuak gorde egingo dira, bai jatorrizkoak, bai jatorrizkoen kopia konpultsatuak, bai eskuarki onartutako datu-euskarriak, horien artean jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan soilik dauden dokumentuak. Bertsio elektronikoak daudenean ez dira beharrezkoak izango originalak, baldin eta dokumentu horiek legezko baldintza aplikagarriak betetzen badituzte jatorrizkoen baliokide eta fidagarritzat hartuta auditoretzaren ondorioetarako.
- Neurriaren gauzatzen amaituta, horretarako jasotako funtsen erabilerari buruzko justifikazio-kontu bat aurkezteko betebeharra, honako hauek barne hartuta:
 - Mugarrien eta helburuen betetze-maila, hasieran finkatutakoekin edo, hala badagokio, berrikusitakoekin alderatuta.
 - Neurketaren benetako kostua, hasieran zenbatetsitako edo berrikusitako kostuaren aldean.
 - Neurria eta inplementatzeko modua deskribatzea, baita gauzatzean aplikatutako kontrol-mekanismoak ere.
- Arloko Biltzarraren likidaziorako azken justifikazio-kontu bat aurkezteko betebeharra, bai erabilitako zenbatekoei dagokienez, bai lortutako mugarri eta helburuei dagokienez.

6.- Eusko Jaurlaritzaren Iruzuraren aurkako Neurrien Planari (2022ko martxoaren 29an onetsita) atxikitzea, edo, hala badagokio, antzeko edukia duen plan propio bat edukitzea, berari dagokion jarduera-eremuan funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla bermatzeko eta deklaratzeko, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokionez. Iruzuraren aurkako Neurrien Plan propioa edukiz gero, Eusko Jaurlaritzaren Legean xedatutakoa ere bete beharko du.

7.- Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGE) aurkeztea, hitzarmen honen II. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Betebehar hori honako hauei ezartzen zaie: kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten enplegatu publikoei eta eginkizun horietako batzuk eskuordetu zaizkien beste agente batzuei, bai eta onuradun pribatuei, bazkideei, kontratistei eta azpikontratistei ere, baldin eta haien jarduerak funtsekin finantzatzen badira eta beren interesen alde jardun badezakete, baina EBren finantza-interesen aurka, interes-gatazka baten esparruan.

8.- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko printzipioa errespetatzea (do no significant harm - DNSH printzipioa). Erregelamendu horrek Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta aplikatzekoa den Europako gainerako araudia ezartzen ditu. Horretarako, DNSHaren autoebaluazioa egin beharko da, –Kalte nabarmenik ez egiteko printzipioaren autoebaluazioa (DNSH)–, hitzarmen honen III. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

9.- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean esleitutako etiketa berde eta digitalari buruzko baldintzak betetzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren, 2021eko otsailaren 12koaren, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzekoaren, VI. eta VII. eranskinari jarraikiz.

10.- Argitalpenetan, hedapen-jardueretan, web-orrietan eta, oro har, edozein hedabidetan proiektuari egiten zaion erreferentzia orok Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Irudiarri buruzko Eskuliburuan edo Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak onartzen duen eskuliburuan agertzen diren baldintzak bete behar ditu. Aurrekoa alde batera utzi gabe, aipatu beharko da, nolana ere, jarduera Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren funtsen bidez finantzatu dela eta Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak kudeatu duela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18.4 artikuluan aurreikusitako moduan.

Era berean, finantzaketa horren jatorria aipatu beharko da, eta haren ikusgarritasuna bermatu, bereziki diruz lagun daitezkeen jarduerak eta horien emaitzak sustatzen direnean; horretarako, informazio koherente, eraginkor eta neurrizkoa emango zaie hartzaile askori, baita hedabideei eta publikoari ere. Era berean, eremu horretan egiten diren lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridiko guztiek, bai goiburuan, bai garapen-gorputzean, honako erreferentzia hau izan beharko dute: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak Next Generation EU funtsen bidez finantzatua», irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikularekin bat etorritik. Agindu horren bidez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen da.

11.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskatutako beste edozein informazio eta dokumentazio bidaltzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bitartez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio-datu aurreratuak sortzeko jarduketan benetako kostua finantzatzeko eta ordaintzeko konpromisoa hartzen du, gehienez 188.000,00 euro, eta horretarako 1000831000 1.12281.71200 2022/001284 aurrekontu-aplikazioari

beharrezko kreditua eman zaio hitzarmenak dakarren gehieneko kostu ekonomikoari aurre egiteko, urteko zenbatekoen banaketa honen arabera:

2022	188.000,00 €
------	--------------

1.- Hitzarmen honen bigarren klausulan jasotako jardueri dagozkien inbertsioetan diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100 finantzatuko dira, eta honako hauek hartuko dira halakotzat:

- Kanpo-kontratazioak, ingeniariak, jarraipen eta obra zibilekoak.
- Diruz lagundu daitezkeen jarduketekin lotutako ekipamenduak erosteko kontratuak, ekipamendu teknologikoak eta informatikoak barne.
- Software espezializatuko lizentziak erostea, baldin eta jarduketarako baino ez badira, eta eskuratutako ekipamendua behar bezala erabiltzeko aukera ematen badute.
- Aholkularitzako kanpo-kontratazioak, diruz lagundutako jarduketari lotuta egiten badira. Bideragarritasunaren eta xehetasun-ingeniariari buruzko azterketak diruz lagundu ahalko dira, betiere beharrezkoak badira jarduketa egiteko. Hautagarritasun-data baino lehen egindakoak izan ahalko dira, baina, kasu horretan, kostua ez da hautagarria izango.
- Kanpo-kontratazioak lege-aholkularitza, notariotza, aholkularitza tekniko edo finantzario, kontabilitate edo auditoretzako lanetarako, proiektuari zuzenean lotuta badaude eta beharrezkoak badira proiektua prestatu edo garatzeko, betiere aurrekontuan aurreikusi badira.

2.- Hala ere, ez dira diruz lagunduko honako kontzeptu hauetan sartzen direnak:

- Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
- Administrazio-baimenak, lizentziak, baimenak, abalen eta/edo fidantzen kostua, isunak, tasak, zergak edo tributuak.
- Administrazioko izapideei, kontsultei, kontratazioei edota kudeaketei lotutako edozein gastu, baimenak edo lizentziak lortzeko beharrezkoak izan arren.
- Eskatzaileak sinatutako aseguruak.
- Edozein kostu finantzario.
- Zehapen penalei lotutako kostuak, baita prozedura judizialeko gastuak ere.
- Sistema eragile eta aplikazio ofimatikoetarako lizentziak.
- Administrazioaren jarduketan eragiketa- eta mantentze-gastuak edo gastu propioak.

1.- Ekarpeneren zenbatekoa Gipuzkoako Foru Aldundiak honako honetarako erabili ahal izango du soilik: Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio-datu aurreratuak sortzeko jarduerak egiteak dakartzan kostuak finantzatzeko.

2.- Hitzarmen hau formalizatu ondoren ordainduko da zenbatekoa.

